# URRIA
# OCTUBRE

2018



www.azkunazentroa.eus

Az

Azkuna Zentroa

AlhóndigaBilbao

# consonni RADIO AZ-REKIN
# consonni RADIO CON AZ

**Az-ko kolektibo egoiliarra**
Colectivo residente en Az



## Urriak 2 > abenduak 18 (asteartea)

2018az geroztik Az-ko kolektibo egoiliarra den consonnik consonni radio Az-rekin irrati-igorgailua aurkezten du, irratia entzutea esperimentaziorako tresnatzat hartuta.

Irrati honek podcast-en parrila du, kultura kritikoa hedatzeko. Irrati-arloko profesionalek zuzenduta, hainbat formaturekin esperimentatzen dute, hala nola irrati magazine kulturalekin, soinu-entseguarekin eta irrati-fikzioarekin, eta podcasting-ak eskaintzen dituen aukerak ikertzen dituzte. Bi programa berri hauek edukiko dituzte: Alicia San Juanek gidatuko duen ‘Voces en el jardín’ eta ‘Titania’, Tania Arriagarekin.

## 2 de octubre > 18 de diciembre (martes)

consonni, el colectivo residente de Az desde 2018, presenta la emisora ‘consonni radio con Az’, donde utilizan la escucha radiofónica como herramienta de experimentación.

Esta emisora incluye una parrilla de podcasts para difundir cultura crítica. Dirigidos por profesionales del mundo radiofónico, experimentan con formatos como los radio magazines culturales, el ensayo sonoro o la radio ficción e investigan las diferentes posibilidades del podcasting. Se estrenan con dos nuevos programas: ‘Voces en el jardín’ conducido por Alicia San Juan y ‘Titania’ con Tania Arriaga.

**EGITARAUA** PROGRAMA

**Urriak 2** de octubre, **Azaroak 6** de noviembre, **Abenduak** 4 de diciembre (**Astearteak** Martes) **/ 18:00 - 19:00**

**VOCES EN EL JARDÍN. Alicia San Juan**

**Kulturen Ataria. Amphytrion Espazioa. Sarrera dohainik** Atrio de las Culturas. Espacio Amphytrion. Entrada libre

**TITANIA. Tania Arriaga**

**Asteartea, urriak 30** de octubre, martes **/ 19:00 - 20:00**
**WHERE DOES OUR MONEY COME FROM?** (EUS, GAZT/CAST, ENG)

**Asteartea, azaroak 27** de noviembre, martes **/ 19:00 - 20:00**
**LESBIANAS QUE, CREAN O NO, CREAN. HAMAIKA LESBIANA KULTURGILE, BAI ALA?** (EUS, GAZT/CAST)

**Asteartea abenduak 18** de diciembre, martes **/ 19:00 - 20:00**
**ALMA VIVA 2025** (EUS, GAZT/CAST, ENG)

**Kulturen Ataria. Amphytrion Espazioa. Sarrera dohainik** Atrio de las Culturas. Espacio Amphytrion. Entrada libre

Sabadell Fundación

**Fundación Banco Sabadellek egonaldi artistikoen Amphitryon programa babesten du, artea eta kultura sustatzeko eta hedatzeko duen programaren barruan.**
Fundación Banco Sabadell apoya el programa de residencias artísticas Amphitryon, dentro de su programa de fomento y difusión del arte y la cultura.

# AZAROA NOVIEMBRE

2018



www.azkunazentroa.eus

Az

Azkuna Zentroa

AlhóndigaBilbao

IRRATIA RADIO

# consonni RADIO AZ-REKIN
# consonni RADIO CON AZ

**Az-ko kolektibo egoiliarra**
Colectivo residente en Az

www.consonni.org




## Irailak 26 > abenduak 18 (asteartea)

2018az geroztik Az-ko kolektibo egoiliarra den consonnik consonni radio Az-rekin irrati-igorgailua aurkezten du, irratia entzutea esperimentaziorako tresnatzat hartuta.

Irrati honek podcast-en parrila du, kultura kritikoa hedatzeko. Irrati-arloko profesionalek zuzenduta, hainbat formaturekin esperimentatzen dute, hala nola irrati magazine kulturalekin, soinu-entseguarekin eta irrati-fikzioarekin, eta podcasting-ak eskaintzen dituen aukerak ikertzen dituzte. Bi programa berri hauek edukiko dituzte: Alicia San Juanek gidatuko duen *Voces en el jardín* eta *Titania*, Tania Arriagarekin.

## 26 de septiembre > 18 de diciembre (martes)

consonni, el colectivo residente de Az desde 2018, presenta la emisora 'consonni radio con Az', donde utilizan la escucha radiofónica como herramienta de experimentación.

Esta emisora incluye una parrilla de podcasts para difundir cultura crítica. Dirigidos por profesionales del mundo radiofónico, experimentan con formatos como los radio magazines culturales, el ensayo sonoro o la radio ficción e investigan las diferentes posibilidades del podcasting. Se estrenan con dos nuevos programas: *Voces en el jardín* conducido por Alicia San Juan y *Titania* con Tania Arriaga.

EGITARAUA

**VOCES EN EL JARDÍN. Alicia San Juan**
Urriak 2, azaroak 6, abenduak 4 (astearteak)
18:00 - 19:00

**TITANIA. Tania Arriaga**

Asteartea, azaroak 20 / 18:00 - 19:00
**LESBIANAS QUE, CREAN O NO, CREAN. HAMAIKA LESBIANA KULTURGILE, BAI ALA?** (EUS, GAZT)

Asteartea, azaroak 27 / 18:00 - 19:00
**ALMA VIVA 2025** (EUS, GAZT, ENG)

Asteartea, abenduak 18 / 18:00 - 19:00
**WHERE DOES OUR MONEY COME FROM?** (EUS, GAZT, ENG)

Kulturen Ataria. Amphitryon Espazioa
Sarrera dohainik

PROGRAMA

**VOCES EN EL JARDÍN. Alicia San Juan**
2 de octubre, 6 de noviembre, 4 de diciembre (martes) 18:00 - 19:00

**TITANIA. Tania Arriaga**

20 de noviembre, martes / 18:00 - 19:00h
**LESBIANAS QUE, CREAN O NO, CREAN. HAMAIKA LESBIANA KULTURGILE, BAI ALA?** (EUS, CAST)

27 de noviembre, martes / 18:00 - 19:00h
**ALMA VIVA 2025** (EUS, CAST, ENG)

18 de diciembre, martes / 18:00 - 19:00h
**WHERE DOES OUR MONEY COME FROM?** (EUS, CAST, ENG)

Atrio de las Culturas. Espacio Amphitryon
Entrada libre

# ABENDUA
# DICIEMBRE

2018



Az
Azkuna Zentroa

AlhóndigaBilbao

www.azkunazentroa.eus

**IRRATIA** RADIO

# consonni RADIO AZ-REKIN
# consonni RADIO CON AZ

**Az-ko kolektibo egoiliarra**
Colectivo residente en Az

consonni
— RADIO




## Irailak 25 > abenduak 18 (asteartea)

2018az geroztik Az-ko kolektibo egoiliarra den consonnik consonni radio Az-rekin irrati-igorgailua aurkezten du, irratia entzutea esperimentaziorako tresnatzat hartuta.

Irrati honek podcast-en parrila du, kultura kritikoa hedatzeko. Irrati-arloko profesionalek zuzenduta, hainbat formaturekin esperimentatzen dute, hala nola irrati magazine kulturalekin, soinu-entseguarekin eta irrati-fikzioarekin, eta podcasting-ak eskaintzen dituen aukerak ikertzen dituzte. Bi programa berri hauek edukiko dituzte: Alicia San Juanek gidatuko duen *Voces en el jardín* eta *Titania*, Tania Arriagarekin. Zuzenean emititzen da streaming bidez.

## 25 de septiembre > 18 de diciembre (martes)

consonni, el colectivo residente de Az desde 2018, presenta la emisora ‘consonni radio con Az’, donde utilizan la escucha radiofónica como herramienta de experimentación.

Esta emisora incluye una parrilla de podcasts para difundir cultura crítica. Dirigidos por profesionales del mundo radiofónico, experimentan con formatos como los radio magazines culturales, el ensayo sonoro o la radio ficción e investigan las diferentes posibilidades del podcasting. Se estrenan con dos nuevos programas: *Voces en el jardín* conducido por Alicia San Juan y *Titania* con Tania Arriaga. Se emite en directo a través de streaming

**EGITARAUA** PROGRAMA

**Urriak 2** de octubre, **Azaroak 13** de noviembre, **Abenduak** 4 de diciembre (**Astearteak** Martes) **/ 18:00 - 19:00**

**VOCES EN EL JARDÍN. Alicia San Juan**

**Kulturen Ataria. Amphytrion Espazioa. Sarrera dohainik** Atrio de las Culturas. Espacio Amphytrion. Entrada libre

**TITANIA. Tania Arriaga**

**Asteartea, urriak 30** de octubre, martes **/ 19:00 - 20:00**
**WHERE DOES OUR MONEY COME FROM?** (EUS, GAZT/CAST, ENG)

**Asteartea, azaroak 27** de noviembre, martes **/ 20:00 - 21:00**
**LESBIANAS QUE, CREAN O NO, CREAN. HAMAIKA LESBIANA KULTURGILE, BAI ALA?** (EUS, GAZT/CAST)

**Asteartea abenduak 18** de diciembre, martes **/ 19:00 - 20:00**
**ALMA VIVA 2025** (EUS, GAZT/CAST, ENG)

**Kulturen Ataria. Amphytrion Espazioa. Sarrera dohainik** Atrio de las Culturas. Espacio Amphytrion. Entrada libre

EUSKERA

URTARRILA OTSAILA MARTXOA 2019





Bilbao

Az
Azkuna Zentroa
AlhóndigaBilbao

**OTS. 5** (astr.)

# consonni radio Az-rekin



Argazkia: Maite Arberas. consonni

consonni radio AZ-rekin consonni argitaletxea Az-ko kolektibo egoiliarra da 2018az geroztik. Testuinguru horretan, consonni radio AZ-rekin irratia sortu da, hitzarekin eta irratia entzutearekin esperimentatzeko eta kultura kritikoa zabaltzeko xedez. Entzun gaitzazu streaming bidez, edo zatoz saioren bat zuzenean entzutera, atarian kokatutako gure irrati-estudio atseginean grabatzen ari garen bitartean. Eta emanaldiren bat entzuterik ez baduzu, ez kezkatu: online ere entzun gaitzakezu, consonni-ren webgunean, Az-renean, edo ivoox moduko irrati-plataformen bidez.

Umorea lagun, edozer gauzarekin ausartzen da Tania Arriaga Titania saioan, dela soinu-fikzioa dela elkarrizketa. Saioan, Idoia Jauregi (Euskadi Irratia), Yolanda eta Elenka (bar-teatro Badulake taberna-antzokia) nahiz Amaia Agirre eta Saioa Alkaiza bertsolariak entzungo ditugu, besteak beste. Alicia San Juan Jatorriez mintzatuko zaigu, Voces en el jardín saioaren lehen emanaldian, Jon Maia bertsolariarekin eta Txani Rodríguez idazlearekin. Emanaldi bakoitzean gai bat dakarkigu, eta gonbidatu berriak.

2019an jarraipena izango dute saio horiek, eta beste bi transmisio ere sortuko dira. Bata Xabier Erkizia soinu-artista eta ekoizleak gidatua. Bestea, berriz,  Arrate Hidalgo itzultzaile eta Ansible Fest fikzio-zientzia feministako Bilboko jaialdiaren antolatzaileetako batek gidatua.

Programazio horren osagarri, gainera, deialdi publiko bat antolatu dugu. (informazio gehiago, 72. orrialdean). Zain izango gaituzu asteartero, 18:00etan, gure irrati-estudioan, emanaldiez zuzenean gozatzeko.

consonni

Otsailaren 5etik aurrera, asteartero

18:00

Consonni radioren estudioa
Kulturen Ataria

Sarrera dohainik

www.consonni.org

@consonniart

@_consonni_

@_consonni_

consonni radio

Egonaldi Artistikoen Programari buruzko informazio gehiago 72. orrialdean.

EUSKERA

APIRILA MAIATZA EKAINA 2019



AZKUNA
ZENTROA
ALHÓNDIGA
BILBAO

Bilbao

# consonni radio Az-rekin



consonni editoriala Az-ko kolektibo egoiliarra da 2018az geroztik. Horiek horrela, consonni radio con AZ irratia sortu da, hitzarekin eta irratia entzutearekin esperimentatzeko eta kultura kritikoa zabaltzeko xedez.

«Entzun streaming bidez, edo zatoz saioren bat zuzenean entzutera, atarian kokatutako gure irrati-estudio atseginean grabatzen ari garen bitartean. Gainera, online ere gaituzu entzungai, consonniren webgunean, Az-renean, edo ivoox moduko irrati-plataformen bidez».

Alicia San Juan kazetariaren Voces en el jardín (Ahotsak lorategian) saioak atal gehiago edukiko ditu 2019. urtean, eta hiru transmisio berri izango dira.

Alde batetik, soinu-artista eta ekoizlea den Xabier Erkiziak irratiari buruzko saio bat izango du: Zerutik hurbil ez da ondo bizitzen. Eterraren istorioak.

Proposamen honetan, irratiak sorreratik izan dituen eta izan zitzakeen formak berrazteruko ditu, XX. mendeko zenbait pertsonaiaren bidez

Zer egingo luke Barbarellak? Horixe da itzultzaile eta Ansible Fest zientzia-fikzio feministako jaialdiaren antolatzaileetako bat den Arrate Hidalgoren soinu-espazioa. Gaur egungo feminismoko funtsezko gaiak zehatz aztertzen ditu, zientzia-fikzioaren bidez. Bisturia eskuan, testu espekulatibo bat hartu, eta eztabaida ateratzen du, beste fikzio batzuetan eta gaur egungo pentsamendu feministan haren mutazioak bilatzeko. Arraterekin batera, Laura Lazcano kritikaria egoten da, ikus-entzunezkoei eskainitako atalean.

Programazioa osatzeko, beste saio bat egongo da, hain zuzen, martxoaren 1ean amaitu zen deialdi publikoaren emaitza, baina oraindik erabaki gabe dago. Informazioa Azkuna Zentroaren eta consonniren web-orrian emango da aditzera.

consonni

Astearteero
18:00

Kulturen Ataria

Sarrera dohainik

www.consonni.org

@consonniart

@_consonni_

@_consonni_

consonni radio

consonni
— RADIO

EUSKARA

# UZTAILA ABUZTUA IRAILA 2019



AZKUNA ZENTROA ALHÓNDIGA BILBAO

Bilbao

**UZT. ETA IRA.** (astr.)

# consonni radio AZ-rekin



consonni arte-arloko argitaletxe eta ekoiztetxeak, Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoko kolektibo egoiliarra den aldetik, consonni radio con AZ aktibatu du, hitzarekin eta irratia entzutearekin esperimentatzeko eta kultura kritikoa zabaltzeko. Hiruhileko honetan, consonni radio con AZko emankizun-zerrendan finkatuta dauden programek jarraipena izango dute, hain zuzen, hauek: *Voces en el jardín*, Alicia San Juanekin; *¿Qué haría Barbarella?*, Arrate Hidalgorekin eta Laura Lazcanorekin; eta *Cerca del cielo no se vive bien. Historias del Éter*, Xabier Erkiziarekin.

Gainera, deialdi publikoan hautatutako programa gehienak ere izango ditugu entzungai. Gabriel Villotaren V*oces que caminan* programak soinu-dokumentalaren eta saiakeraren arteko formatu hibridoa proposatzen du. Musikak, ahotsak eta landako grabazioak bateratuz sortutako soinu-collagea dago zati askotan; eta isiltasunaren bilaketan eta gorputzak mugitzean ateratzen duen soinuaren artean dabil.

*Phoenix Ragazza* Jone Uriarte eta Lur Olaizolaren lana da. Euskara hutsean egindako programa honek zinemaren eta irratiaren arteko erlazioa proposatzen du ikuspegi feministatik, begiak eta begirada entzute bilakatzeko. *Black surgery / Robar como un artista* Liben Svaart-en proposamena da. Zuzenean soinu-esperimentazioa egitea proposatzen du, kopiaren, pastixearen eta loop-aren artean, jada badauden musiketatik abiatuta musika-konposizioak sortzeko.

*Hacía dónde va la propiedad intelectual* Intangia elkartearen proposamena da. Emakumeen egoerari buruzko eztabaida jabetza intelektualaren eta autogestioaren arlora hedatu nahi du, eta atal batzuk ditu emakume sortzaileei tresnak emateko. *Contracömic* Borja Crespo eta Elizabeth Casillasen proposamena da. Komikian dauden beste mundu batzuk aurkitu nahi ditu: fanzinea, objektu artistiko gisa; autoedizioa, adierazteko modu gisa; tebeoa, aktibismo gisa....

**Entzun gure programa streaming bidez, edo zatoz saioren bat zuzenean entzutera, Atarian dagoen gure irrati-estudio atseginean grabatzen ari garen bitartean. Gainera, online ere gaituzu entzungai, consonniren webgunean, Azkuna Zentroarenean eta ivoox moduko irrati-plataformen bidez.**

consonni

**Uztaila eta iraila**
**Astearteetan**

18:00
Kulturen Ataria

Sarrera dohainik

consonni.org

@consonniart

@_consonni_

@_consonni_

consonni radio

consonni — RADIO

EUSKARA

# URRIA AZAROA ABENDUA 2019



AZKUNA
ZENTROA
ALHÓNDIGA
BILBAO

Bilbao

**URR. › URT.** (astr.)

# consonni radio Az-rekin




Imagen: Rosa Llop

consonni argitaletxeak, Az-ko Kolektibo Egoiliarra den aldetik, consonni radio Az-rekin sortu du, hitzarekin eta irratia entzutearekin esperimentatzeko eta kultura kritikoa zabaltzeko xedez.

Hurrengo hilabeteetan, deialdi publikoaren bidez hautatutako azken programak izango ditugu irratian entzungai:

*Voces que caminan* Gabriel Villotarena da, eta soinu-dokumentalaren eta saiakeraren arteko formatu hibridoa proposatzen du. Musikak, ahotsak eta landako grabazioak bateratuz sortutako soinu-collagea du zati askotan; eta isiltasunaren bilaketan eta gorputzak mugitzean ateratzen duen soinuaren artean dabil.

*Phoenix Ragazza* Jone Uriarte eta Lur Olaizolaren lana da. Euskara hutsean egindako programa honek zinema eta irratiaren arteko erlazioa proposatzen du ikuspegi feministatik, begiak eta begirada entzute bilakatzeko.

*T.R.A.U.M.A.* Magda De Santok eta Duen Sacchik gidatutako irratsaioa da, queer/Kuir/Cuir komunitateko artista, ikerlari, kuratore, aktibista, idazle, sortzaile eta langileen diasporako eta migrazioko esperientziatik abiatuta sortutako kultura publikoak partekatzera gonbidatzen duena.

Bestalde, consonni radio Az-rekin-en emankizun-zerrendan finkatuta dauden programa hauek jarraipena izango dute: *Voces en el jardín*, Alicia San Juanekin; eta *¿Qué haría Barbarella?*, Arrate Hidalgorekin eta Laura Lazcanorekin.

**Entzun gaitzazu streaming bidez, edo zatoz saioren bat zuzenean entzutera, atarian kokatutako gure irrati-estudio atseginean grabatzen ari garen bitartean. Eta emanaldiren bat entzuterik ez baduzu, ez kezkatu: online ere entzun gaitzakezu, consonni-ren webgunean, AZrenean, edo ivoox eta iTunes moduko irrati-plataformen bidez.**

consonni

Urria > Urtarrila
Asteartero

18:00
Kulturen Ataria

Sarrera dohainik

consonni.org

@consonniart

@_consonni_

@_consonni_

consonni radio

EUSKARA

# URTARRILA OTSAILA MARTXOA 2020



AZKUNA
ZENTROA
ALHÓNDIGA
BILBAO

Bilbao

**URT. 24** (ostr.)

# consonni radio Az-rekin FEST




Irudia: Rosa Llop

Consonni argitaletxeak Azkuna Zentroa - Alhondiga Bilbaon duen egonaldiaren amaiera iritsi da. Bertan #consonniradioconAz irratia sortu dugu, eta, bi urtez, irratiko hitzarekin eta entzuketarekin esperimentatu dugu, kultura kritikoa zabalduz.

Amaiera ospatzeko, emakume sortzaileen topaketa bat antolatu nahi dugu, arte garaikidea eta literatura harremanetan jartzeko, feminismoak bide-orri gisa eta irratia transmisore gisa hartuta. Amaiera-Radio Show Live-a Alhondiga Bilbaoko auditorioan izango da, eta funtsezko hiru literatura-lan hartuko ditu ardatz gisa, elkarrekin imajinatzen jarraitzeko abiapuntu modura. Batetik, hirurogeita hamarreko hamarkadan idatzitako bi nobela: Marge Piercy-ren *Mujer al borde del tiempo* eta Lucy R. Lippard-en *Yo veo/Tú significas*. Bestetik, Donna J. Haraway-ren *Seguir con el problema* saiakera.

Hizkuntzarekin esperimentatzen den lan ahalduntzaileak, aktibismo feministan ibilbide luzea duten hiru egileren eskutik. Piercy, Lippard eta Harawayk bizi garen munduari buruzko begirada kritikoa izateko eta beste eszenatoki hobeak irudikatzeko eskatzen digute. Gosea zabaltzeko, literatura-lanak sartzeko eta literatura espekulatibo eta esperimentalaz hitz egiteko, Teresa López-Pellisak moderatutako mahai-inguru bikaina dugu, Haizea Barcenilla, Helen Torres eta Arrate Hidalgorekin.

Ekitaldiaren plater nagusia Idoia Zabaleta, Mursego eta María Arnal bezalako artista erreferentzialek jartzen dute, liburu horiek arteetatik zuzenean eta musikatik interpretatzeko gonbidatuak, hitza gorputz, ekintza eta soinu bihurtuz. Diziplina eta belaunaldi ezberdinetako emakume sortzaileak gurutzatzen dira: Mursego eta Lucy Lippard; Idoia Zabaleta eta Marge Piercy eta Maria Arnal eta Donna Haraway. Batzuen testuak inspirazio-iturri dira besteentzat. Zabaletak, Arnalek eta Mursegok literatur lan bakoitzaren interpretazio pertsonala egiten dute. Idatzitako hitzek gorputza hartzen dute oholtza gainean.

Liburuak metamorfosiatu egiten dira hasierak aktibatzeko eta elkarrekin irudikatzeko. Zuzeneko Radio Show hau bi urte hauetan bizitakoa gogoratzeko unea da, eta azken bi urte hauetan zabaldu ditugun edukiak (podcastak eta liburuak) posible egin dituzten pertsona ugariei eskerrak emateko unea.

consonni

**Urtarrilak 24, ostirala**

19:00
Auditorioa

Sarrera dohainik gonbidapenarekin

consonni.org

@consonniart

@_consonni_

@_consonni_

consonni radio

consonni
— RADIO